

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresaren funtsezko baliabideak finkatzea ezinbestekoa da honen funtzionamendu egokia mantentzeko. Baliabideak ongi kudeatzea gakoa izango da enpresaren arrakasta lortzeko. Baliabideei dagokionez, hainbat motetan banatzen dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak.

Baina funtsezko baliabideei erreparatu baino lehen, baliabideak aplikatzeko moduari erreparatu behar diogu. Hasiera batean, enpresan aplikatuko ditugun funtsezko baliabideak finkoak eta ordezkaezinak izango dira. Beste alde batetik, eskeintzen dugun zerbitzua perfektionatzeko gaitasuna izango dute.


Lehenengo baliabidearekin hasita, baliabide fisikoak enpresa batek behar dituen materialeri buruz hitz egiten dugu, adibidez, salmenta puntuak edo lantegiak izan daitezke. Gure enpresaren kasuan, aeroportuan kabinak egiteko lekua eta materiala beharko ditugu. Bulego bat ere beharko dugu lan egiteko toki finko bat edukitzeko. Azkenik, enpresaren webgunea egiteko ordenagailuak beharko ditugu eta bezeroen eskuragarri edukiko duten telefono finko bat.



Ondoren, balio intelektual eta giza baliabideei erreparatzerakoan, taldekide guztiok ditugun abileziak ezinbestekoak izango dira proiektua aurrera ateratzeko. Adibidez, Ikerrek duen autokonfiantza eta konpromezua. Edo Andoniren autonomia eta innobazioa. Galderren autoikaskuntza eta flexibilitatea. Eta azkenik, Aimarren ikusmen eta abilezia sozialak. Gainera, taldeko kide guztiok dugu lidergoa, eta taldean lan egiteko abilezia.

Erabiliko dugun azken baliabidea, finantza-baliabidea izango da. Hasieran, enpresa eraikitzeko, 25.000€ inguruko inbertsio beharko dugula aurreikusten dugu gure enpresa aurrera eramateko. Hasierako inbertsioaz gain, ez dugu aurreikusi finantza-baliabidea gehiago beharko dugunik, azalpen hau kostuen egiturak atalean sakonduko dugu.

Aurretik esan bezala, ezinbestekoa izango da gure enpresa aurrera ateratzeko baliabideak ongi finkatuak izatea, eta gure ustez baliabide guztiak ongi finkatuak ditugu, eta gainera, baliabide hauek ongi kudeatzeko gai gara. Nahiko argi dugulako nahi eta behar duguna, eta taldeko kideak ongi osatzen garelako, batak besteari laguntzeko gai gara, beraz, talde lan on bat garatzeko gai gara.



Gure enpresa sortu genuenean, kide bakoitzak test bat egin genuen gure gaitasunak eta ahultasunak ikusteko eta test horien ondorioak taula honetan bildu ditugu.

GURE ENPRESAKO ROLAK

Andoni Garrido: Enpresako Administrazio eta Zuzendaritzako Arduraduna

Galder Viegas: Orientazio Komertzialeko eta Berrikuntzako Arduraduna

Iker Simon: Produkzioko Arduraduna

Aimar Labaka: Marketingeko Arduraduna

Hasteko, gure enpresak ez du lider bakarra izango, kooperatiba bat izango da. 4 lider izango ditu. Honen arrazoia, lider izateko gaitasuna lauek betetzen dugula da, beraz kargu hori banatuko dugu.

Lehenik eta behin, Andoni Garrido Enpresako Administrazio eta Zuzendaritzako Arduraduna izango da, izan ere, liderazgoa, arazoaren aurrean ongi erantzuteko gaitasuna, autonomia eta konpromezua ditu.

Galder Viegas, aldiz, Orientazio Komertzialeko eta Berrikuntzako Arduraduna izango da. Autokonfiantza asko baitu, gainera etorkizunerako ikuskari ona da, eta horretaz gain, gauzak ongi planifikatzeko gaitasuna du.

Iker Simon, Produkzioko Arduraduna izango da, konpromezu handia duelako, eta gainera, lanaren eta produktuaren kalitatea ona izateko esfortzu handia egiten duelako. Eta hori enpresa ondo joateko ezinbestekoa da.

Azkenik, Aimar Labaka Marketingeko Arduraduna izango da, abilezia sozialak nahiko garatuak dituelako, adibidez lidergoa, komunikatzeko gaitasuna, edo inteligentzia emozionala.